# GORABIDE

Nº 270 Zk.
2018ko MAIATZA
MAYO de 2018

DISCAPACIDAD INTELECTUAL - BIZKAIA - ADIMEN DESGAITASUNA



INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA

Valoración de dependencia
Mendekotasunaren balorazioa
pg. 4 or.

Co-funded by the Erasmus+ Programme of the European Union

Proyecto europeo para la inclusión
Inklusiorako europar proiektua
pg. 5 or.



Nuevo servicio infanto-juvenil
Haur-gazteentzako zerbitzu berria
pg. 6 or.




2017AN EGINA ZAZPIGARREN INKESTAKO DATUEN ARABERA

## Gure familien asebetetzea handitu da

SEGÚN LOS DATOS DE LA SÉPTIMA ENCUESTA, REALIZADA EN 2017

## Aumenta la satisfacción de nuestras familias




**Asamblea de socias y socios: miércoles 23 de mayo, a las 18:30, en Azkuna Zentroa**
(detalles y orden del día, en el interior)

**Bazkideen batzarra: maiatzaren 23an, asteazkena, 18:30etan, Azkuna Zentroan**
(zehaztasunak eta eguneko egitaraua, barruan)

# Aumenta la satisfacción de nuestras familias con el servicio que reciben

## *La séptima encuesta que hemos realizado mejora tanto en la participación como en la conformidad global con los apoyos y recursos que ofrecemos*

Según la encuesta realizada el año pasado, la satisfacción global de las familias con nuestros centros y servicios ha mejorado desde la última medición efectuada en 2015, y alcanza un 4,30 sobre 5, si bien la valoración de la pregunta sobre la satisfacción general se sitúa en el 4,36. Por su parte, los aspectos comunes a cualquiera de nuestros recursos, todos reciben valoraciones por encima de 4. Se trata de la atención que da el equipo profesionales a las familias (4,40), la información que reciben las familias (4,24) y la consideración de deseos y preferencias (4,21).

Por tipo de servicio, la encuesta otorga un 4,41 sobre 5 a los centros como residencias, viviendas y centros de día, y lo más valorado es la atención del equipo de profesionales a la persona usuaria (4,55 puntos). En este segmento, destaca la satisfacción con el Servicio de Viviendas, con una puntuación global de 4,68 y un tercio de los ítems valorados con 5 puntos. En los centros de día, la satisfacción global es de 4,57 y lo más valorado es la atención que reciben las familias (4,61). Y en residencias, la satisfacción global es de 4,24, y lo más valorado es la facilidad de realizar visitas (4,45). Por su parte, la satisfacción global con la Residencia de Estancias Temporales Ola es de 4,49, y la del Servicio de Respiro en Fin de Semana, de 4,54.

**BBK SAIOA GORABIDE**

En el caso de nuestro Servicio BBK SAIOA GORABIDE, la satisfacción global se sitúa en 4,29 sobre 5, y ninguno de los aspectos valorados obtiene una puntuación inferior a 4. Entre ellos, destacan la atención recibida (4,44) y la rapidez de respuesta en la búsqueda de soluciones en situaciones urgentes (4,40).

Por último, la satisfacción global con nuestro Servicio de Tiempo Libre asciende a 4,20 sobre 5. Y los aspectos concretos mejor valorados por las personas consultadas es la atención del voluntariado a la persona usuaria (4,43) y la relación de ésta con las personas voluntarias (4,39).

**Mejora continua**

Estos datos, obtenidos a través de las respuestas de las familias, cuyo índice de participación ha aumentado respecto a la encuesta anterior, nos proporcionan las claves para poder continuar mejorando la calidad y calidez de nuestros servicios. Por eso, agradecemos las aportaciones de las familias que han respondido a la encuesta, y animamos al resto a sumarse a próximos sondeos.



## Satisfacción del voluntariado

En el caso de nuestras personas voluntarias, la satisfacción que sienten con su colaboración es de 4,31 sobre 5. Además, valoran con un 4,49 la acogida que reciben al incorporarse a nuestro Servicio de Tiempo Libre; y con un 4,40 su relación con la persona responsable de grupo. Por otro lado, destacan por su alto compromiso y su disposición a continuar desarrollando su labor de voluntariado en Gorabide.

LECTURA FÁCIL

Las familias han puesto nota a los servicios de Gorabide. Lo que más les gusta es la atención que les da el equipo de profesionales. También les gusta la información que reciben y que se tenga en cuenta lo que desean y lo que prefieren. Todos los servicios han tenido buena nota. Estas encuestas nos sirven para seguir mejorando.

# Gure familiek jasotako zerbitzuarekin duten asebetetzea handitu egin da

***Egindako zazpigarren inkestan parte-hartzea eta adostasun orokorra hobetu egin dira, eskaintzen ditugun laguntza eta baliabideei dagokienez***



Iaz egindako inkestaren arabera, familiek gure zentro eta zerbitzuekin duten asebetetze orokorra hobetu egin da 2015ean egindako azken neurketaren aldean, eta 5etik 4,30eko puntuazioa lortu du; eta asebetetze orokorraren gaineko galderaren balorazioa 4,36koa izan da. Bestalde, gure baliabideetako alderdi komun guztiek 4tik gorako balorazioak jaso dituzte. Hau da, profesional taldeak familiei emandako arreta (4,40), familiek jasotako informazioa (4,24) eta nahien eta preferentzien iritzia (4,21).

Zerbitzu motaren arabera, inkestak 5etik 4,41eko puntuazioa ematen die zentroei, egoitza, etxebizitza eta eguneko zentroei besteak beste, eta baloratuena profesional taldeak erabiltzaileari emandako arreta izan da (4,55 puntu). Atal honetan, azpimarratzekoa da Etxebizitzen Zerbitzuarekin dagoen asebetetzea, 4,68ko puntuazio orokorrarekin hain zuzen, eta baloratutako itemen herena 5 punturekin baloratuta. Eguneko zentroetan, asebetetze orokorra 4,57koa da, eta baloratuena familiek jasotako arreta da (4,61). Eta egoitzetan, asebetetze orokorra 4,24koa da, eta baloratuena bisitak egiteko erraztasuna da (4,45). Bestalde, Ola Aldi Baterako Egotaldietarako Egoitzarekin dagoen asebetetze orokorra 4,49koa da, eta Asteburuko Arnasaldiko Zerbitzuarena, 4,54koa.

**BBK SAIOA GORABIDE**

Gure BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzuaren kasuan, asebetetze orokorra 5etik 4,29koa da, eta baloratutako alderdi guztiek 4tik gorako puntuazioa dute. Besteak beste, nabarmentzekoak dira jasotako arreta (4,44) eta larrialdietan konponbideak bilatzeko erantzun azkarra (4,40).

Azkenik, Astialiko Zerbitzuarekin dagoen asebetetze orokorra 5etik 4,20ra igo da. Eta galderei erantzun dietenek ondoen baloratutako alderdi zehatzak hauek dira: boluntarioek erabiltzaileari emandako arreta (4,43) eta haien harremana boluntarioekin (4,39).

**Hobekuntza etengabea**

Datu hauek familien erantzunen bitartez jaso ditugu. Haien parte-hartzea handitu egin da aurreko inkestaren aldean. Horrek gakoak ematen dizkigu gure zerbitzuen kalitatea eta berotasuna hobetzen jarraitu ahal izateko. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiegu inkestari erantzun dieten familiei, eta gainerakoak animatu nahi ditugu hurrengo galdetegietan parte hartu dezaten.

## Boluntarioen gogobetetasuna

Gure boluntarioen kasuan, Gorabiden egindako borondatezko jarduerarekin duten asebetetze-maila 5etik 4,31koa da. Gainera, 4,49 batekin baloratzen dute gure Astialdiko Zerbitzuan sartzean jasotako harrera, eta 4,40 batekin taldeko arduradunarekin duten harremana. Bestalde, haien konpromiso handiagatik eta Gorabiden boluntariotza garatzen jarraitzeko gogoagatik nabarmentzen dira.

IRAKURKETA ERRAZA

Familiek nota jarri diete Gorabideren zerbitzuei. Gehien gustatzen zaiena profesional taldearen arreta da. Halaber, jasotako informazioa eta nahi dutena eta nahiago dutena kontuan hartzea ere gogoko dute. Zerbitzu guztiek nota ona jaso dute. Inkesta hauek hobetzen jarraitzen laguntzen digute.

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# ¿Todavía no tienes hecha la valoración de dependencia?

***Recuerda que es <u>imprescindible</u> para poder acceder a servicios y prestaciones, y que agiliza los accesos por urgencias***

En el equipo del Servicio BBK SAIOA GORABIDE, seguimos detectando que hay un número importante de personas usuarias que no tienen valorada la dependencia. Por eso, y respondiendo a nuestra estrategia de anticiparnos a posibles situaciones de necesidad de las personas con discapacidad intelectual y sus familias, recordamos que es imprescindible tener realizada la valoración de dependencia, para poder acceder a servicios tanto específicos de discapacidad intelectual como de personas mayores o dependientes, tales como viviendas y residencias (permanentes y temporales), centros de día, prestaciones económicas, servicio de ayuda a domicilio, orientación y subvención para productos de apoyo, etc. Además, tener la dependencia valorada agiliza mucho el acceso a recursos en situaciones de urgencia.

Independientemente del grado de discapacidad o del servicio que se esté utilizando (incluso para personas que estén trabajando en empleo ordinario), os recomendamos que os pongáis en contacto con vuestra trabajadora social de referencia de nuestro servicio BBK SAIOA GORABIDE para que os ayudemos en la gestión, que es sencilla y muy importante. En primer lugar, hay que entregar la solicitud en los Servicios Sociales de Base de los ayuntamientos. Después, el Servicio de Dependencia de la Diputación Foral de Bizkaia realiza una visita al domicilio para realizar la valoración y proponer, junto con la familia, un Plan Individual de Atención (PIA), proponiendo los servicios o prestaciones que más se adecuen a cada situación y, en su caso, solicitándolos. Por último, llega al domicilio una orden foral que señala el grado de dependencia, el PIA y los recursos asignados.

# Oraindik ez daukazu mendekotasunaren balorazioa eginda?

***Gogoratu <u>ezinbestekoa</u> dela zerbitzu eta prestazioak lortzeko eta larrialdietan bidea errazten duela***

BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzuan ohartu gara oraindik ere erabiltzaile askok ez daukatela mendekotasunaren balorazioa eginda. Hori dela eta, adimen desgaitasuna duten pertsonek eta haien senideen izan ditzaketen beharrizanei aurrea hartzeko asmoz, gogorarazi nahi dugu ezinbestekoa dela balorazio hori eginda edukitzea adimen desgaitasunarekin lotutako zerbitzuak zein pertsona nagusi edo mendekoei dagozkienak lortzeko, hala nola etxebizitzak eta egoitzak (aldi baterakoak zein egonkorrak), eguneko zentroak, prestazio ekonomikoak, etxez etxeko laguntza zerbitzua, laguntza-produktuen inguruko orientazioa eta horiek lortzeko laguntzak, eta abar. Gainera, mendekotasun-maila baloratuta izateak asko bizkortzen ditu larrialdietako egonaldiak.

Daukazun desgaitasun maila edo erabiltzen ari zaren zerbitzua edozein direla ere (enplegu arruntetan lanean ari diren pertsonak barne), gure BBK SAIOA GORABIDE zerbitzuko gizarte-langilearekin harremanetan jartzea gomendatzen dizuegu, gestio hori egiten laguntzeko. Izan ere, oso erraza eta oso garrantzitsua da. Lehenik eta behin, eskaera entregatu behar da Udaletako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan. Ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiko Mendekotasun Zerbitzuak etxera bisita egiten du, balorazioa egin eta, familiarekin batera, Banakako Arreta Plan (BAP) bat proposatzeko. Egoera bakoitzaren arabera egokienak diren zerbitzu edo prestazioak proposatuko dira eta, hala badagokio, eskatu egingo dira. Azkenik, mendekotasun-maila, BAP eta esleitutako baliabideak adierazten dituen foru agindu bat bidaliko da etxera.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**
**Tel. 94 453 90 86**

# Lideramos una de las fases del proyecto europeo Coesi que busca transformar las organizaciones para estimular la inclusión

***Participamos con otras cuatro entidades de Alemania, Austria, Eslovenia y Portugal***



Desde noviembre de 2017 y hasta octubre de 2019, participamos en el Proyecto Coesi financiado por la Unión Europea. Su objetivo es convertir el empoderamiento y la inclusión social de las personas con discapacidad intelectual en elementos centrales que transformen las organizaciones que prestan apoyo a este colectivo. Para ello, estamos trabajando con entidades de Alemania, Austria, Eslovenia y Portugal, con el objetivo de crear herramientas que sirvan para evaluar la inclusión, planificar estrategias y recomendaciones que permitan mejorar los procesos de inclusión, empoderar a personas usuarias y formar a profesionales. En ese plano, y en base a nuestra experiencia en planificación centrada en la persona, estamos liderando la creación de un seminario para profesionales de atención directa de otras entidades, como una medida para propiciar actitudes que puedan generar nuevas estrategias y tipologías de apoyo.

**Más información:**
gorabide.com/proyecto-coesi

LECTURA FÁCIL

Estamos participando en un proyecto europeo para que la inclusión sea más importante en las entidades como Gorabide. Trabajamos con personas de Alemania, Austria, Eslovenia y Portugal, para poder evaluar, planificar y mejorar la inclusión.

# Europako Coesi proiektuaren faseetako batean lider izan gara, erakundeak eraldatuz inklusioa sustatzeko

***Alemania, Austria, Eslovenia eta Portugaleko beste lau erakunderekin hartzen ari gara parte***

2017ko azarotik 2019ko urrira arte, Europar Batasunak finantzatutako Coesi Proiektuan parte hartuko dugu. Helburua zera da, adimen desgaitasuna duten pertsonen ahalduntze eta gizarteratzea elementu nagusi bilakatzea, pertsona horiei laguntza ematen dieten erakundeen lana eraldatzeko. Horretarako, Alemania, Austria, Eslovenia eta Portugaleko erakunde batzuekin lanean ari gara, inklusioa ebaluatzeko tresnak sortu, inklusio-prozesuak hobetzeko estrategia eta gomendioak planifikatu, erabiltzaileak ahaldundu eta profesionalak ondo prestatzeko. Zentzu horretan, pertsonengan zentratutako planifikazioan daukagun esperientzia oinarri hartuta, beste erakunde batzuei arreta zuzena emateko profesionalentzako mintegi bat sortzen ari gara, laguntzarako estrategia eta tipologia berriak sortzeko jarrerak sustatze aldera.

**Informazio gehiago:**
gorabide.com/coesi-proiektua

IRAKURKETA ERRAZA

Europar proiektu batean parte hartzen ari gara, erakundeetan inklusioa are garrantzitsuagoa izan dadin. Alemania, Austria, Eslovenia eta Portugaleko jendearekin ari gara lanean, inklusioa ebaluatu, planifikatu eta hobetzeko asmoz.



# Haur-gazteentzako Orientazio Zerbitzu berria

Gure familiek babes handiagoa eskatzen digute adimen desgaitasuna duten pertsonentzat, jaiotzaren unetik adinez nagusiak izan arte. Horri erantzuna emateko asmoz, gure BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua Haur-gazteentzako Orientazio Zerbitzu bat garatzen hasi da. Bakoitzaren erreferentziazko gizarte langilearen bidez erabil daiteke zerbitzu hori. Helburua zera da, familiei aholkularitza ematea, adimen desgaitasuna duten adingabeek 0 eta 16 urte bitarteko garapenerako laguntza egokia izateko. Bereziki, etapa batetik besterako trantsizio aldi konplexuetan, sortzen diren eskaera eta jarrera aldaketen aurrean. Gainera, zerbitzu horren asmoa familientzako diziplina anitzeko erreferente bat izatea ere bada, aldian-aldian bertaratu eta erabiltzaileen bilakaeraren inguruan hitz egin eta jasotzen dituen laguntzen egokitasuna baloratzeko. Horretarako, zerbitzu zabal bat eskainiko da: diagnostikoa; espezialistengana bideratzeko aukera; aitorpen ofizialak, prestazioak eta baliabide ekonomiko eta materialak jasotzeko laguntzak; zerbitzuen eskaerak kudeatzeko orientazioa; diagnostiko, balorazio, tratamendu eta jarraipen psikologikoa; elkarbizitzaren zailtasunen aurrean laguntza ematea; hasierako balorazio psikiatrikoa eta espezialistarengana bideratzea; hezkuntza arloko inklusio-prozesuan laguntza ematea; eta familia prestakuntza.

**Informazio gehiago:** BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua
adiministracionsaioa@gorabide.com | Tel. 94 453 90 86

# Nuevo Servicio de Orientación Infanto-juvenil

En respuesta a la demanda de nuestras familias de contar con mayor apoyo desde el nacimiento hasta la mayoría de edad de las personas con discapacidad intelectual, nuestro Servicio BBK SAIOA GORABIDE ha comenzado a impulsar un Servicio de Orientación Infanto-juvenil, al que se puede acceder a través de la trabajadora social de referencia. Su objetivo es asesorar a las familias para que cada menor con discapacidad intelectual tenga el soporte adecuado para su mejor desarrollo de 0 a 16 años. Especialmente, en tránsitos de etapa que son complicados por las nuevas demandas y los diferentes retos de comportamiento que se van presentando. Además, este servicio nace con la pretensión de ser un referente multidisciplinar para las familias, al que puedan acudir periódicamente para evaluar la evolución de la persona usuaria y la idoneidad de los apoyos que recibe. Para ello, ofrece un servicio de diagnóstico y derivación a especialistas; apoyo para reconocimientos oficiales, prestaciones y recursos económicos y materiales; orientación y apoyo a la gestión de solicitudes de servicios; diagnóstico, valoración, tratamiento y seguimiento psicológico; ayuda en dificultades de convivencia; valoración psiquiátrica inicial y orientación a especialista; apoyo en el proceso de inclusión educativa; y formación familiar.

**Más información:** Servicio BBK SAIOA GORABIDE
adiministracionsaioa@gorabide.com | Tel. 94 453 90 86



# La Asamblea General de Socias y Socios de Gorabide se celebra el 23 de mayo en Azkuna Zentroa

En entidades como Gorabide, donde las familias socias son el núcleo principal, la participación en la vida asociativa es fundamental. Por eso, la junta directiva anima a todas las personas que sean socias a que acudan a la Asamblea General de Socias y Socios, que tendrá lugar el miércoles 23 de mayo de 2018, a las 18:30, en el CAC2 ubicado en la segunda planta de Azkuna Zentroa (Alhóndiga Bilbao). Durará aproximadamente una hora y media, en la que se dará información de la actividad desarrollada el año pasado y las previsiones y directrices para el presente ejercicio. Al finalizar, habrá un espacio para atender personalmente cuestiones que no se hayan tratado en el turno de preguntas. O, simplemente, para compartir un momento entre quienes forman parte de la asociación. En ese sentido, se recuerda que para asistir a la asamblea es necesario tener la condición de persona socia, por lo que se realizará un control de acceso en la entrada.

# Gorabideko Bazkideen Batzar Nagusia maiatzaren 23an izango da, Azkuna Zentroan

Gorabide antzeko erakundeetan, bazkide diren familiak dira gune nagusia; beraz, bizitza asoziatiboan parte hartzea funtsezkoa da. Hori dela eta, zuzendaritza batzordeak bazkide diren pertsona guztiak animatu nahi ditu Bazkideentzako Batzar Nagusira joatera. 2018ko maiatzaren 23an, asteazkena, izango da, 18:30ean, Azkuna Zentroa - Bilboko Alondegiako bigarren solairuan dagoen CAC2 aretoan. Ordu eta erdi inguru iraungo du, eta pasaden urteko jardueraren inguruko informazioa emango da eta ekitaldi honetarako aurreikuspenak eta zuzentarauak azalduko dira. Amaitzeko, galdera txandan landu ez diren gaien inguruko galderei erantzungo zaie, pertsonalki. Edo, besterik gabe, elkarteko kide direnen artean hizketan aritzeko aukera izango dugu. Zentzu horretan, gogorarazi nahi dugu batzarrera joan ahal izateko derrigorrezkoa dela bazkide izatea, beraz, sarreran kontrol bat egongo da.

## LABURRAK
## BREVES

### Convenio con BBK para información, orientación y apoyo

Gorabide y BBK hemos renovado el convenio de colaboración que permite sustentar nuestro Servicio BBK SAIOA GORABIDE que ofrece acogida, información, orientación y apoyo de manera integral a personas con discapacidad intelectual y sus familias, ubicado en el Centro Ola BBK de Sondika.

### Gure BBK-rekin hitzarmen nagusia berriztatu dugu

Gorabidek eta BBK erakundeak hitzarmena berriztatu dugu. Horri esker eusten diogu gure BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzuari, adimen desgaitasuna duten pertsonei eta beren senideei informazioa, orientazioa eta laguntza emateko. Sondikako Ola BBK zentroan kokatua dago zerbitzu hori.

### Nuevo teléfono de la Diputación, para consultas sobre acción social

El Departamento de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia ha habilitado el número de teléfono 94 406 60 00 para realizar consultas, con horario de 8:30 a 19:00.

### Aldundiako telefono berria, gizarte ekintzari buruzko kontsultak egiteko

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza sailak 94 406 60 00 telefono zenbaki berria jarri du eskura kontsultak egiteko, 08:30etik 19:00etara bitarteko ordutegian.

# GORABIDE

**MAYO DE 2018 | Nº 270 Zk | 2018KO MAIATZA**


Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

## ARGAZKIA LA FOTO




**Personas usuarias y profesionales de nuestra Resiedencia de Sopuerta realizan una revista para dar a conocer las actividades que hacen cada trimestre.**

**Gure Sopuertako Egoitzako erabiltzaile eta profesionalak aldizkari bat egiten hasi dira, hiru hilero burutzen dituzten jardueren berri emateko.**



# agenda maiatza mayo

más en... www.gorabide.com/agenda ...gehiago

## AGRUPACIONES

**Deusto-San Ignacio (Junta):** Martes 8 a las 19:00. Club Solas Etxe. Luzarra nº 24 (Deusto).

**Ermua (Junta):** Lunes 7, a las 19:30. Aldapa nº2 , bajo A (Ermua).

**Mungialdea (Comisión):** Martes 8, a las 20:00. Atxurizubi nº 12 (Mungia).

**Santurtzi (Comisión):** Miércoles 30, a las 19:00. Sabino Arana nº 20-22 (Santurtzi).

## ELKARTEAK

**Deusto-San Ignacio (Batzordea):** Asteartea 8, 19:00etan. Club Solas Etxe. Luzarra, 24 (Deustu).

**Ermua (Batzordea):** Astelehena 7, 19:30etan. Aldapa nº2 , bajo A (Ermua).

**Mungialdea (Komisio):** Asteartea 8, 20:00etan. Atxurizubi, 12 (Mungia).

**Santurtzi (Komisio):** Asteazkena 30, 19:00etan. Sabino Arana, 20-22 (Santurtzi).

## AUTOGESTORES

**Los Nuevos:** Lunes 7, a las 18:00.

**Jóvenes:** Martes 8, a las 18:00.

**Los Veteranos:** Miércoles 9, a las 18:00.

**Grupo de Mujeres:** Martes 15, a las 18:00.

## AUTOGESTOREAK

**Los Nuevos:** Astelehena 7, 18:00etan.

**Gazteak:** Asteartea 8, 18:00etan.

**Los Veteranos:** Asteazkena 9, 18:00etan.

**Emakumeen Taldea:** Asteartea 15, 18:00etan.

## FORMACIÓN FAMILIAR

**Familias de escolares:** Jueves 3, a las 18:00.

**Familias de jóvenes:** Lunes 7, a las 18:00.

**Familias de personas adultas:** Jueves 10, a las 18:00.

**Hermanas/os y cuñadas/os:** Martes 22, a las 18:00.

**Familias de chicas con Rett:** Martes 29, a las 18:00.

## FAMILIEN PRESTAKUNTZA

**Eskola-umeetako familiak:** Osteguna 3, 18:00etan.

**Gazteetako familiak:** Astelehena 7, 18:00etan.

**Helduetako familiak:** Osteguna 10, 18:00etan.

**Anai-arrebak eta koinatak:** Asteartea 22, 18:00etan

**Rett duten nesketako familiak:** Asteartea 29, 18:00etan

## OTRAS CONVOCATORIAS

- Jueves 24: Sesión 'Mi futuro ocupacional y laboral'.
- Viernes 25: Taller 'Conocemos la lengua de signos', para hermanas y hermanos menores, de 6 a 12 años.

## BESTE DEIALDIAK

- Osteguna 24: ''Etorkizun okupazional eta laborala' saioa.
- Ostirala 25: 'Zeinu hizkuntza ezagutzen dugu' tailerra, 6 eta 12 urte bitarteko anai-arreba txikientzat.

**Más información e inscripciones | Informazio gehiago eta izen-emateak**
Diana Cabezas: dianacabezas@gorabide.com | Tel. 94 443 12 10

D.L./L.G. BI-394-2014

Línea perforada. Cortar por aquí.

GORABIDE

ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL

ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

# CONVOCATORIA DE ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA

La Junta Directiva de Gorabide convoca **ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA DE SOCIAS Y SOCIOS**, el miércoles **23 de mayo de 2018,** a las **18:30 horas**, en el CAC2 ubicado en la **segunda planta** de **Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbao** (Plaza Arriquibar nº 4 de Bilbao, con entradas adicionales por las calles Iparraguirre, Fernández del Campo y Alameda Rekalde), en segunda convocatoria, al ser previsible que no pueda celebrarse en la primera, que también queda convocada por este anuncio una hora antes.

## ORDEN DEL DÍA

1. **Lectura, a efectos informativos, del acta aprobada en la asamblea anterior.**

2. **Informe del presidente:**
   2.1. Análisis y aprobación, en su caso, del plan de actuación de la asociación y gestión de la Junta Directiva en el año 2017.
   2.2. Análisis y aprobación, en su caso, del estado financiero del año 2017.

3. **Aprobación del Plan de Actuación para el año 2018.**
   3.1. Exposición por parte del presidente.
   3.2. Presupuesto para el año 2018.

4. **Actualización de las cuotas para el año 2019.**

5. **Resumen, a título informativo, de actuación y gestión de:**
   5.1. Lantegi Batuak.
   5.2. Futubide (Fundación Tutelar Gorabide).

6. **Ruegos y preguntas.**

Al finalizar la asamblea, habrá un espacio para atender las cuestiones que no hayan tenido cabida en el turno de preguntas, compartiendo una bebida.

Lerro zulatua. Ebaki hemendik.

GORABIDE

ASOCIACIÓN VIZCAÍNA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL
ADIMEN EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO BIZKAIKO ELKARTEA

## OHIKO BATZAR NAGUSIETARAKO DEIA

Gorabideko Zuzendaritza Batzordeak **BAZKIDEEN OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO** deia egiten du. Batzarra **2018ko maiatzaren 23an,** asteazkena**, 18:30etan** izango da, **Azkuna Zentroa - Alhóndiga Bilbaoko bigarren solairuan** dagoen CAC2an, (Plaza Arriquibar 4, Bilbon; Iparraguirre, Fernández del Campo eta Rekalde Zumarkaletik ere sar daiteke), bigarren deialdian. Lehenengo deia ordubete lehenagorako egiten da honen bidez, baina seguru asko batzarra ezin izango da lehenengo deialdian egin.

### GAI ZERRENDA

1. **Aurreko batzarrean onartutako akta irakurtzea, informatzeko.**
2. **Presidenteak berriak ematea:**
   - 2.1. Elkartearen 2017ko ekintza plana eta Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa aztertzea eta onartzea.
   - 2.2. 2017ko finantza egoera aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
3. **2018 urterako Ekintza Plana onartzea.**
   - 3.1. Presidentearen azalpena.
   - 3.2. 2018rako aurrekontua.
4. **2019 urterako kuotak eguneratzea.**
5. **Honako hauen jardunbidearen eta kudeaketaren informazioa ematea:**
   - 5.1. Lantegi Batuak.
   - 5.2. Futubide (Gorabide Tutoretzarako Fundazioa).
6. **Galderak eta eskaerak.**

Batzarra eta gero, galderen txandan leku izan ez duten galderez arduratzeko denbora izango da, edari bat partekatuz.